



1. AKTA

EZOHIKO UDALBATZA, 2006ko urtarrilaren 1ean izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta seiko urtarrilaren hamarrean.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Rafaela Romero Pozo a. eta

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta

Mariví Roteta Mujika a. eta

Aitor Larrañga Burguera

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.

Ezohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Juan Ramon Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotziak ez du



bere ezin etorria justifikatu. Halaber, bilkura honetan izan da behin-behineko kontuhartzaile Karmele Lizaso Ubera andrea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren, gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin aurretik, Alkate andreak minutu bateko isilunea gordetzeko gonbita egin die batzordekideei, Begoña Bohoyo González zen herritarraren omenez, duela gutxi zendu zelako bikotekideak emandako tratu txarren ondorioz.

HIRIGINTZA

1.- Bortalaborda.- Urbanizazio-obren Plan gidariaren onarpena.

Alkatearen ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena 2005eko maiatzaren 6an Pasai Donibaneko Bortalaborda eremuaren urbanizazio-obren proiektu arrunten multzoari, LKS Ingenieria enpresak idatzitakoari, eta 2005eko maiatzaren 20an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Plan gidari edo proiektu-multzo horri bost alegazio egin dizkiete.

Alegazio horietako batzuk onesteak proiektuaren zati batzuei eranskina gehitu beharra dakarrenez.

Udalbatzak, Alkate andrek kalitatezko botoa erabili duela eta udaleko Hirigintza eta Ingurumen Batzorde Informatzailearen proposamena kontuan hartuta, honakoa erabaki zuen 2005eko abenduaren 20an irizpen bidez:

ERABAKIA

LEHENA.- Proiektuari aurkeztutako alegazio hauek ezestea edo baiestea, kasuan kasu:

1. alegazioa.- Miguel Arrizabalaga Perez

Bortalabora 13-15ean du lokala.

Ezestea, alegazioa ez baitagokio proiektuaren edukari., baina akordioa exekutatzeko momentuan kontuan hartu beharko da, eskura dituen eskubide legalen arabera.

2. alegazioa.- Eusko Elkartasuna

2.1.-Ez zaio konponbiderik ematen kendu den aparkalekuari.

Alegazioa ezestea, gaia urbanizazio-proiektuaz bestekoa delako.

2.2.-Juandanburu-Sombra eremuan zuhaitzak jartzea.

Alegazioa baiestea; eranskina prestatzea.

2.3.- Eskailera mekanikoak jartzea Bordalaborda frontoia-Lezo Bide ondoan. Igogailua

Alegazioa baiestea, eta bi proiektu independente idaztea Lezo Bideren eta frontoiaren aldamenean bitarteko mekanikoak jartzeko.

2.4.- Arrapala jartzea J.J. Otaegi eta Juandamburu parkearen artean.

Alegazioa baiestea, eta eranskina teknikoak idaztea.

2.5.- Pibota gehiegi dagoenez, barandak, zuhaitzak eta abar jartzea horien ordeztu.

Alegazioa baiestea, eta kontu hori obrak egiterakoan konpontzea.

3. alegazioa.- Ramon Sistiaga

San Roke 6ko garajeen egoera.

Alegazioa ezestea, exekuzioan legezko eskubideak errespetatuko direlako.

4. alegazioa.- Bonantza Auzo Elkartea

4.1.- Frontoiaren aldamenean aparkalekuak jartzea.

Alegazioa baiestea, eta aparkalekurako eraikin bat eraikitzekeo proiektua idaztea.

4.2.- Lurperatuko diren zabor-erakundeak gutxiago dira.

Alegazioa ezestea, bai erakunde-kopurua eta bai horiek lurperatzearen erabakia Zerbitzuen Departamentuak hartu duelako, bere ezarpen globalaren barruan.

4.3.- Gasa eta zuntz optikoa sartzea.

Alegazioa ezestea, gasa sartzea proiektuan aurreikusita dagoelako jada, eta zuntz optikoa bat datorrelako Euskaltelek aurreikusia duen hedapenarekin.

4.4.- Itzal gutxi Juandanburun, eta arrapala jarri beharra.

Alegazioa baiestea eta Zerbitzuari jakinaraziko zaio hiri-altzariak eta jokoak jarri beharko direla berriz.

4.5.- Eskailerak erreformatzea, Lezo Bide 3tik Bordalaborda arte.

Alegazioa ezestea, konponketa oso garestia irteten delako lortuko den hobekuntzaren aldean.

5. alegazioa: Bordalaborda 20ko auzotarrak

Bordalabordatik Bombas txabolara doan bidea hobetzea.

Ezestea, proiektuan sartuta baitago jada.

BIGARRENA.- Urbanizazio-obren proiektu arrunten Plan Gidaria onartzea, LKS Ingenieria enpresak idatzitakoa, bai eta alegazioak onartu direnez gero sortu diren eranskinak ere.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: bi botaziotan berdinketa izan da, ZAZPI (7) boto alde, PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta ZAZPI (7) boto kontra EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdietako zinegotziena, eta BI (2) abstentzio, PP alderdiko zinegotziena. Alkate andrearen kalitatezko botoak erabaki du botazioa.
- Parte hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - José Luis Goikoetxea jaunak adierazi du baldin eta proiektuen kostea baliabide arrunten %10 baino gehiagokoa denean, horien inguruko kontratazio guztiak, bai osotara bai zatika, Udalbatzan aztertu behar direla.

Horrez gain, Udalbatzari eskatu dio kontratua loteka edo faseka zatitzeari buruz iritzia ager dezala.

Bere ustez, lortu nahi den akordioak gutxietsi egiten dituela Udalbatzaren agintea eta eskumena.

- Udal-idazkariak azaldu du edozein kasutan Udalbatzak kontratatzeke duen eskumena delega daitekeela. Bestalde, proiektuetaz hitz egitean, argitu behar da ez duela zertan bat etorri udal-eremuko nahiz udalerriko lurralde-eremu zabal bateko berrurbanizazio-jarduketan planifikazio, programazio edo proiektuek eta kontratazio-proiektuak berak (Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegilearen 122. artikulua definitzen duenaren arabera).

Gai hori Lege horrek beraren 69. artikulua espedientea onartzeari buruz ezartzen duen aurreikuspenarekin lotu behar da. Onespen-akordio horren barruan sartuko da halaber, gastuaren onarpena; eta gastu horrek, urte bat baino gehiagokoa denean, dagokion kreditu-konpromisoa beharko du.

Horregatik, bere ustez ez da izango iruzurra berurbanizazio-obrak fasetan zatikatzea, aurrekontuen erritmoarekin edo Udalaren ahalmen ekonomikoarekin bat joan daitezen; izan ere, hori litzateke modu bakarra obra horiek gauzatzeko krediturik ez badago edo ezinezkoa bada kreditu-konpromisorik lortzea programako, planifikazioko edota makro-proiektuko obra guztientzat.

H.P.K.L.T.B.-ren 68. artikulua xedatzen duenez, ezin daiteke kontratu baten xedea zatitu kontratuaren kostua gutxitzeko eta, hala, publizitateari, prozedurari edo esleipen-moduari dagozkion baldintzak saihesteko; baina begi bistakoa da hori ez dela kasua oraingoan, prozedura nahiz kontratazio-forma horiek bere horretan utzi dira-eta.

Edozein kasutan, kontratazio-organoa besterik ez da aldatzen, zenbatekoagatik. Hala eta guztiz ere, Udalbatzak berak zatikatu du kontratuaren objektua aurrekontuak onartzearekin, eta, horrenbestez, kontratazioa faseka egitea baimendu. Are gehiago, Udalbatza honetan onartu nahi den baimen edo eskuordetzearen bidez, erabateko segurtasun juridikoarekin itxiko da sistema.

- Alkateak proposatu du soilik diktamenaren 1. puntua botatzea, eta konpromisoa hartu du 2. puntua, exekuzioa loteka egiteko aukerari buruzkoa, beste Batzorde batean aztertzeko, Udalbatzaren hurrengo saioan onartzeko.
- José Luis Goikoetxea jaunak adierazi du ez dakiela benetan nori gobernatzen duen, badirudiela Idazkari jaunak gobernatzen duela.
- Guillermo Sánchez-Berra jaunak eskatu du ondoren gai-zerrendako 6. puntua aztertzea, bertan daudenez Karmengo Ama eskolako umeen gurasoak. Alkateak hala egitea onartu du.

6.- Lehengo irakasleen etxebizitzaren jabego publikoaren demanio-aldaketa.

Udalbatzak, Korporazioaren partaideen kopuru legalaren gehiengo absolutua eratzen duten zinegotziek bertaratu eta aho batez hala adostu zuten, eta apirilaren 2ko Tokiko Erregimen Oinarrien 7/1985 Legeko 47.2 n) artikulua araberan, onar dadin aurkezten du Kultura eta Administrazio Batzorde bateratuak 2005eko azaroaren 14an adostutako irizpen hau:

KULTURA ETA ADMINISTRAZIOKO BATZORDE BATERATUAK 2005EKO AZAROAREN 14AN ADOSTUTAKO IRIZPENA:

“2005eko uztailaren 5ean Ondareko Administrazioak ondoko erabakiaren proposamena aurkeztu zuen:

“Jabari publikoko ondasunaren kalifikazio juridikoaren aldaketa. Karmengo Ama eskolaren irakasleen etxebizitzak.

Ondasun hau Pasaiako Udalarena da. Irakasleen etxebizitzak deritzen hauek hezkuntzako zerbitzu publikora atxikiak egon ondoren, 2000/05/29ko udalbatzarrean etxebizitza horiei (1. Zk.ko 3.ezkerreko etxebizitza izan ezik) atxikipena aldatzea erabaki zen. Honela eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuak 2000/04/04an emandako Aginduan eraikuntzei atxikipena kentzeko baimena eman ondoren, aipatutako udalbatzarrean San Pedroko Morales Oliver plazako, Pasai Donibaneko J.J. Otaegi Plazako eta Trintxerpeko Karmengo Ama Plazako irakasleen etxebizitzei atxikipena kentzea onartu zen.

2000/05/29ko udalbatzarrean hartutako erabakiaren ondorioz, etxebizitza horiek Etxebizitzen Zerbitzu Publikoari atxikita daude.

Ondasun horren kalifikazio juridikoa honako hau da: jabari publikoa – etxebizitzen zerbitzu publikoa. Hala ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saileko lurralde-ordezkariek idatzia aurkeztu zuen ondokoa adierazteko: aukera zegoela haur-hezkuntzarako beste eraikin bat eraikitzeko, Karmengo Ama plazan dagoen eraikinaren ordeza eraikin hori 1947koa da–.

Sailean aukera ezberdinak aztertu ondoren, eraikuntza horretarako tokirik egokiena orain maisu-maistren etxebizitzak dauden partzela dela jo dute; eta Pasaiako Udalari eskatu diote partzela eta eraikuntza hori sailaren eskura uzteko.

Horretarako, jabari publikoko ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatu behar da.

Bestalde, Toki-erakundearen Ondasunen Erregelamenduko 8. artikulua eskatzen duen bezala, horrelakoetan ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzea –kasu honetan jabari publikoko ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzea– legezkoa eta egokia dela justifikatzen duen espedientea izapidetu behar da.

2005/03/10ean Pasaiako udal idazkariak egindako txostenaren bidez adierazi da jarduketa legezkoa dela, eta txosten horretan jaso dira jarraitu beharreko urratsak, indarreko araudiaren arabera.

Bestalde, kultur teknikariak 2005/05/17an egindako txostenean zehaztu eta justifikatzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurkeztutako proposamenari ekiteko egokitasuna eta beharra.

2005/06/14an eta 2005/06/20an udal arkitektoek aipatutako proposamenari buruzko txostenak egin zituzten. Lehenengoan Pasaiako AASSetan aipatu eremuari buruz jasotzen diren aurreikuspenen azterketa egiten da, eta bertan adierazten da maisu-maistren etxebizitzan edozein jarduketa egiteko xehetasun-ikerketa behar dela. Bigarren txostenean aztertzen dira bai proposamena oro har, bai Eusko Jaurlaritzak proposatu duen eraikin berriaren alderdi teknikoak. Txosten horretan adierazten da arkitektura aldetik komenigarria dela maisu-maistren eraikina kentzea; baina ondarearen ikuspegitik, eraikin horrekin udal ondarea galduko denez, Hezkuntza Sailak galera hori konpentsatu beharko luke. Horrekin batera hainbat zehaztapen tekniko egiten dira.

Horiek guztiak kontuan hartuta, Kultura eta Hezkuntzako Informazio Batzordeari proposatzen diogu ondoko AKORDIOA hartu eta ondoren Udalbatzari aurkeztea:

AKORDIOA

1.- Behin-behinean onartzea ondoko jabari publikoko ondasunaren kalifikazio juridikoaren aldaketa: Karmengo Ama plazako irakasleen etxebizitzak. Etxebizitzen zerbitzu publikoari atxikitako jabari publikoko ondasun gisa kalifikatuta zeuden horiek, aurrerantzean Hezkuntza zerbitzuari atxikitako jabari publikoko ondasun izango dira. Aldaketa horren egokitasuna eta legezotasuna ondoko egunetan egindako txostenetan jasotzen da: 2005/03/10, 2005/05/17, 2005/06/14 eta 2005/06/20.

Kalifikazio juridikoaren aldaketaren onarpenak ez dakar Hezkuntza Sailak aurkeztutako proiektuaren onarpena.

2.- Hilabetez jendaurrean jartzea jabari publikoko ondasunaren kalifikazio juridikoaren aldaketa, udaleko iragarki-taulan jarritz eta GAO n argitaratuz; epe horretan nahi duenak akordioaren aurkako alegazioak aurkez ditzan.

3.- Akordio hori jendaurrean jarri ondoren eta alegaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko onartutzat jotzea.”

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: HAMABI (12) boto alde, PSE-EE (5), EA (3), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziena eta LAU (4) abstentzio, EAJ-PNV alderdiko zinegotziena.
- Parte-hartzeko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - Alkate andreak azaldu du eraikin horren trukean Eusko Jaurlaritzak sustatutako Babes Ofizialeko Etxebizitza kantitate berdina jasotzeko egindako gestioek ez dutela izan nahi bezalako emaitzarik, baina, hala eta guztiz ere, Karmengo Ama eskolaren errebindikazioak ezin direla gehiago atzeratu.
 - Udal-idazkariak akordioaren kontrako txostena, ez-legezkotasunari buruzko ohartarazpena, aurkeztu du; izan ere, nahiz akordioa politikoki legitimoa izan, erabat bazterreraz uzten dira eta ez zaie kasurik egiten ez udal-ondareari ez Hezkuntzari atxiki nahi zaion ondasunaren balioari, batez ere, Udaletxe honen ekonomiarentzat kalte txikiagoa lekarketen aukerak egon badaudela jakinda.

2.-Araneder 2.06.01. S1 Xehetasun Azterlanaren behin betiko onarpena.

AURREKARIAK

Hirigintzako Zinegotzi Ordezkariek 2005eko azaroaren 21ean Araneder 2.06.01 S1 Exekuzio-unitatearen xehetasun-azterlanari hasierako onarpena ematea erabaki zuen; hain zuzen ere, David eta Julián Velasco Prieto arkitektoek 2005eko ekainean erredaktatu eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Departamentuak aurkeztu zuena.

Espedientea jendaurrean jarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean azaroaren 25ean eta hedapen handiko egunkari batean iragarkiak jarri eta gero, eta hamabost eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Hasierako onarpenean ohartarazten zitzaion behin betiko onarpena eman aurretik, dokumentazio osagarria aurkeztu beharko zuela, ondorengo puntuak justifikatzeko:

“(.)

- *G02 zonakatzeko xehetuarean planoan, behe eta lehen solairuan akatsez 15,20 m-ko hondoa irudikatu dute, gehienezko 12,00 m-koaren ordez.*
- *Sekzio orokorren G03 planoan hegalarren altuera hegalarren barrualdeari dagokio, nahiz eta grafikoan sabaiko forjatuarekiko erreferentzia irudikatu den; izan ere, Arau Subsidiarioen 52. artikuluan 4. puntuak altueren neurriari buruz, xedatzen du neurketa bertikalki egingo dela fatxadako azaleratik, eraikinaren lerrokatzearen erdi-puntuaren nibeletik fatxada horretara ematen duen azkeneko solairuko sabaiko forjatuaren barrualdeko nibeleraino, eta estalkiaren planoarekiko edo hegalarren behealdeak fatxadaren azalerarekiko ebakidura forjatu horren gainetik kotan geratuz gero, altuera gehieneko erreferentzia hartuko dela kontuan hartuz.*
- *Azalera eraikigarri maximoa 2.224 m² (t) mantenduko da. (2.225 metro karratutan (t) jarri da)."*

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak abenduaren 14an eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen.

Udal Arkitektoak 2005eko abenduaren 15ean aurkeztutako dokumentazioari aldeko txostena egin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Dokumentu horri onespena emateko organo eskuduna Korporazioko batza da, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeko 22.2 c) artikuluan arabera.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 20ko irizpenean egindako proposamena aintzakotzat hartuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Behin betiko onarpena ematea Araneder 2.06.01 S1 Exekuzio-unitatearen xehetasun-azterlanari, hain zuzen ere, David eta Julián Velasco Prieto arkitektoek 2005eko ekainean erredaktatu eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Departamentuak aurkeztu duen.

BIGARRENA.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Hirigintza Planeamenduaren Arautegiko 140.6 artikulua agindutakoa jarraituz.

HIRUGARRENA.- Dokumentua behar bezala diligentziaztea, hain zuzen ere, Hirigintzako Planeamenduari buruzko Araudiak 140.7 artikuluan ezartzen duen moduan.

LAUGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta beraren kontra jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.



BOSGARRENA.- Interesdunei Zerga Ordenantzetan aurreikusitako tasa likidatzea behar bezala jakinarazi eta gero.

- Aktan jasota gera dadin, honakoa da botazioaren emaitza: ZAPI (7) aldeko boto eman dituzte PSE-EE (5) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotziek, eta abstenitu egin dira EAJ-PNV (4), EA (3) eta PP (2) alderdiko gainerako BEDERATZI (9) zinegotziak. Hortaz, proposamena onartu da.

3.- Ingurumen determinazioak sartzea Ana Mary eta beste eremu batzuei buruzko Arau Subsidiarioen Aldaketan.

AURREKARIAK

2004ko urriaren 25ean eginiko bileran, Udalbatzak erabaki zuen, besteak beste, B dokumentua-Pasaiako Arau Subsidiarioen Aldaketaren Fitxa Urbanistikoa onartzea, hain zuzen, eremu hauei dagokiena: H.I.E. Trintxerpe Goia, H.I.E. 2.09.02 “Azkuene Goia”, H.E..2.08.03 “Villa Ana Mary”, H.E. 2.04.03 Izarra etal H.E. 2.03.01 “Salinas”, 2005eko irailekoa.

2005eko azaroaren 7an horri dagokion dokumentazioari sarrera eman zitzaion Foru Aldundian. Lurralde Antolamendurako eta Sustapenerako Departamentuak oniritzia eman zion dokumentazioari eta, azaroaren 23an, eremu horietako Arau Subsidiarioen Aldaketa argitaratu egin zen; argitaratzeko aurretik dokumentu hori aurkeztu eta onartu behar baitzen.

Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendari Nagusi Aitor Aranguren Iriarte jaunak 2005eko abenduan txosten bat egin du, eta bertan adierazten du aurkeztu den dokumentuan ingurumen-inpaktuaren behin betiko txostenean jasotako determinazioak ongi jaso direla; baina hala eta guztiz ere, determinazio txikiago gehiago sartzea eskatu du.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Dokumentu horri onespena emateko organo eskuduna Korporazioko batza da, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeko 22.2 c) artikulua araberak. Eta 47.2 art.an xedatzen denez, akordioa gehiengo osoz hartu behar da.

Udalbatzak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 47.2.11) artikuluan aurreikusten den gehiengo absolutua osatzen duten bertako zinegotzien aho batez, eta Hirigintza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko abenduaren 20ko irizpenean egindako proposamena aintzakotzat hartuta,



AKORDIOA

LEHENA.- Onarpena ematea Ingurumeneko Zuzendari Nagusiak eginiko txostenean agertzen diren ingurumen-determinazioak sartzeari B dokumentuan – Fitxa urbanistikoak (2005eko urriaren 25eko Udalbatzan onartutakoa).

BIGARRENA.- Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundira helaraztea, bai eta azkeneko gehikuntzak jasoko dituen dokumentua ere, egoki diren lege-tramiteei ekin aurretik argitaratzeko.

4.- 2005eko urriaren 25ean Udalbatzarrak Izartu Programaren birprogramatzeko erabakien aurka jarritako Beraztertze Rekursoak ebaztea..

“EGITEZKO OINARRIAK

LEHENA.- 2005eko urriaren 25an egindako bileran, Izartu Programaren Birprogramazioa onartu zen.

BIGARRENA.- Junkal Etxebeste Ugarte andreak, Pasai Donibaneko “Aitonon Aterpea” zentro sozialaren izenean eta ordezkartzan, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen 2005eko azaroaren 9an akordio horren kontra; izan ere, akordio hartan, besteak beste, erabaki zen Izartu Programaren baitan Donibaneko barrutiko eraikin sozialarentzat onartutako inbertsioa bertan behera uztea; eta hori edadetuen behar sozialen kalterako da.

HIRUGARRENA.- Patxi Arbillaga eta Juan Carlos Alduntzin jaunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuten azaroaren 23an akordio horren kontra; alegatuz, lehenik eta behin, horrek barruti horretan edadetuek dituzten arazoak areagotu egingo lituzkeela, eta, bigarrenik, birprogramazioak arrisku larrian jarriko lituzkeela aurreikusitako dirulaguntzak, ez direlako beteko Izartu Programan finkatutako helburuak.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

LEHENA.- Errekurtsoa garaiz aurkeztu zen, Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 117. Artikuluak ezarritako epean.

BIGARRENA.- Errekurtso honi buruzko ebazpena emateko organo eskuduna Korporazioko Udalbatza da, aipatutako Legearen 116.1 artikulua agintzen duenez. Hala eta guztiz ere, Udalbatzak erabaki zuen Alkate andreak ahalmena ematea akordio hori betearazteko beharrezko guztietarako, eta, horrenbestez, Alkatea gaitua dago errekurtsoari buruz ebazpena emateko, Udalbatzaren hurrengo bileran berrestekotan.

Aipatutako aurrekontuak hilabeteko epea finkatzen du errekurtsoen ebazpena eman eta jakinarazteko,

baina Udalbatza ez da bilduko abenduaren 27a arte; eta, horrenbestez, ez litzateke epea beteko, bigarren errekurtsioari dagokionez.

HIRUGARRENA.- Bi errekurtsioek helburu bera dutenez, biei batera eman dakieke ebazpena. Ez batean ez bestean ezin dira aurrera atera errekurtsio-jartzailen helburuak, eta gaitzetsi egin behar dira aurkeztutako alegazioak. Birprogramazio honen arabera, jakina denez, zenbateko bat pasa behar da jarduketa batzuetatik beste batzuetara. Gogoan hartu beharrekoa da inbertitutako kopuru osoa (globala nahiz urtekoa) ezin daitekeela aldatu.

Zenbateko-aldaketa bi jarduketa hauen artean egingo da:

- **2. ardatza. 2.6.1. neurria.** Jarduketa: ERAIKIN SOZIALA ERAIKI, EGOKITU ETA EKIPATZEA.
- **4. ardatza. 4.1.1. neurria.** Jarduketa: ERDIGUNE BERRIA SORTZEA.

Zehaztu ditugun NEURRI horietatik, birprogramazio hau onartuta, lehenengo neurriak izango du minorazioa, hau da, ERAIKIN SOZIALA ERAIKI, EGOKITU ETA EKIPATZEA partidak: 681.315,73 euroko minorazioa izango du, hain justu.

Kantitate hori 4.1.1. neurrira pasatuko da (“Erdigune berria sortzea”). Neurri horrek aldi berean gehikuntza handiagoa du, 2.4.1. neurritik egiten zaion ekarpenagatik —“Parke eta lorategiak sortzea” partidari dagokiona, hain zuzen—, eta 322.683,56 euro izango dira guztira.

Horregatik, azkenik honela geratuko da **4.1.1. neurria. Jarduketa: ERDIGUNE BERRIA SORTZEA:**

	GUZTIRA TOTAL	2002	2003	2004	2005
Zenbatekoa ebatzita(eurotan) Importe resolución (euros)	1.229.426,54	1.032,538,79	192.323,87	4.563,88	
Zenbateko berria (eurotan) Nuevo importe (euros)	2.233.425,83	412.312,62	26.823,10	9.600	1.784.690,11

LAUGARRENA.- Udal Gobernuak aipatutako jarduketan birprogramazioa Udalbatzarrera eramateko izan dituzten arrazoiei dagokienez, **2.6.1. neurria. Bizkaia auzoan eraikin soziala eraiki, egokitu eta ekipatzea** partidari buruz azaldu behar da gaurko eguna arte, nahiz urte batzuk pasatu diren (2001-02-26ko Osoko Bilkura), ez garela gai izan, ez orain ez aurreko legealdian, eraikinaren programari buruz adostasuna lortzeko, ez eta erabilera horietarako kokaleku egokienari



buruz ere. Hori dela-eta, gaur egun programa ez dago oraindik erabakitako erabileraren arabera definituta eta, horrenbestez, esan gabe doa, proiektua ere ez dago enkargatuta.

4.1.1. neurria. Erdigune berria sortzea partidari dagokionez, Udal honek, lehenengo fasean, egitura aztertu eta konpontzeko zenbait lan egin zituen. Lan horiek amaituta, proiektua aldatu beharra izan zen. Duela gutxi amaitu da proiektua, eta orain ezagutu dugu zehaztasunez ekintza horren kostua; hain zuzen, **2.000.000 euro**.

Kontuan hartu behar da 2.6.1. neurria. “Eraikin soziala eraiki, egokitu eta ekipatzea” partidari 100.000 euro utzi direla aztertzen ari garen birprogramazioaren ondotik. Kontuan hartuta gaur egun ez dugula proiekturik edadetuen eraikina egiteko, partidako diru horrek eraikin soziala eraikitzeke eta igogailu publikoa jartzeko azterketa geoteknikoak eta proiektuak egiteko balio behar luke, bai eta gaur egun gaizki dauden murrak eraisten eta sendotzen hasteko ere.

Oraindik proiektu idatzirik ere ez dugunez, nekez bukatu ahal izango dugu obra 2007aren amaierarako, eta horixe da Eusko Jaurlaritzak Izartu Programa gauzatzeko eman diezagukeen gehieneko epea. Nolanahi ere, aipatzekoa da helburu horiek guztiak jarduketa ezberdinetan gauzatzea planteatu dela. Hala, proposatzen da eraikin soziala garai bateko Mediku Etxearen lurretan eraikitzea, kanpoko igogailu bat jarrita, eraikina Gune Historikoaren zabalgunearekin lotu eta irisgarritasun-arazoak saihestu eta erdigunera geratzen den distantzia murrizteko.

BOSGARRENA.- Horiek horrela, Udal Gobernu honek eta Korporazio Udaltzarak uste dute, behin Arizabaloko Proiektua eskura dugula, eta, lehen esanda bezala, beharrezko inbertsioaren zenbateko zehatza ezagututa, posible izango dela ekintza hori 2007 urte amaierarako bukatzea; eta, horren ondorioz, beharrezkoa litzateke neurri horri diru gehiago ematea, objektiboki hori zelako “lotu gabe geratuko litzatekeen” gauza bakarra inbertsio horrentzat finantzazioa lortzeko.

Horrela eginda finantzazioa ziurtatzen da, eta, horrenbestez, eraikina egokitzeko obrak egingo direla; eta, bestalde, Aitonon Aterpea egiteko proiektua idatziko dela ere ziurtatzen da, horren ekintza osagarri eta guzti. Hala, bi kasuetan Izartu Programak ezarritako epeak beteko lirateke.

Udalbatzak, bertako zinegotzien gehiengoz

ERABAKI DU

LEHENA.- Gaitzestea Junkal Etxebeste Ugarte andreak, Pasai Donibaneko “Aitonon Aterpea” zentro sozialaren izenean eta ordezkartzan, 2005eko azaroaren 9an eta Patxi Arbillaga eta Juan Carlos Alduntzin jaunek azaroaren 23an jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoak, aurka egin zaion akordioa zuzenbidezkoa denez.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesatuei jakinaraztea, eta adieraztea ebazpenaren kontra Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian jar daitekeela errekurtsoa, gehienez ere bi hilabeteko epean.”

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde, PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak, eta ZAZPI (7) kontra, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdiko zinegotzienak.

ADMINISTRAZIOA

5.- Bide garbiketa zerbitzuaren kudeaketa-aldaketaren behin betiko onarpena.

Mahi gainean utzi da gaia, hobeto aztertzeko.

- Hitz egiteko txandan, honakoek hartu dute hitza:
 - EAJ-PNV eta EA alderdiek bere egiten dute Pertsonal Batzordeak aurkeztu duen idatzia (espedientearekin bat datorrena).
 - Idazkari jaunak, halaber, adierazi du atzoko egunez idatzi bana aurkeztu zutela Ricardo del Pozo Albornoiz jaunak eta Juan Carlos Alduntzin Juanena jaunak (Badia Plataformaren izenean), espedientea iraungitzea eskatzeko.

Alkate andreak eskatuta txostena egin duenez, Idazkariak lehendabizi azaldu nahi izan du azkar egin behar izan duela txostena, eta, ondoren, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.2 artikulua irakurri du. Azaldu du artikulua horrek termino anbiguoak dituen ezin dela baztertu kasu honetan aplikatu daitekeenik eta, horrenbestez, Udalbatzari aholkatu dio, segurtasun juridikoagatik eta ziurrenik gaia judizializatuko dutelako eta izugarritzko ondorio ekonomikoak izan ditzakeelako, espediente hau iraungitzat jotzea eta beste berri bati ekitea.

- Alkateak, alegazioak aintzat hartuta eta txostena entzunda, azaldu du ez dagoela inola ere ziur espedientea iraungitzeari buruz, eta ez duela uste prozeduraren legezkotasuna arriskuan jarriko duenik pixka bat gehiago ez luzatzeagatik; dena den, adierazi du egiten duen azkeneko gauza bada ere legealdia amaitu aurretik prozedura hori Udaltzara ekarriko duela onar dadin, eta horretarako proposatu du gaur bertan hasierako onarpena ematea prozedurari.
- Idazkari jaunak erantzun du kudeaketa aldatzeko espedientearen gaia ez zegoenez eguneko gai-zerrendan eta aurrez ez denez diktaminatu, oraingoan horren inguruan akordiorik hartuko balitz deuseztasun-akatsa izango lukeela.
- Alkate andreak erabaki du gaia erretiratzea, sakonago aztertzeko aukera izateko.
- Guillermo Sánchez-Berra jaunak Idazkari jaunak txosten idatzia egin dezala eskatu du, eta Alkateak onartu egin du.

OGASUNA

7.- Zerga Ordenantzen akats zuzenketa.

2005eko urriaren 25eko udalbatzarrak 2006ko ekitaldirako Zerga Ordenantzen aldaketen behin-behineko onarpena eman zuen; baina aldaketa-espediente horretan akats materialak daudela ikusi dugu.

Horregatik, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Jaurbide Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 105.2 artikulua xedatzen duenaren indarrez, Udaltzak, bertaratutako zinegotziek aho batez hala adostuta, akats horiek zuzendu ditu. Hain zuzen, zuzenketa hauek egin dira:

1- Kudeaketa eta Bilketaren Ordenantza Orokorren 11. artikulua:

Esaten duenean: “interes legala”.

Esan behar du: “berandutze interesa”.

2- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza, Uraz hornitu eta harguneak instalatzeko zerbitzua emateagatik tasaren Zerga-Ordenantza, Hondakin bilketa zerbitzua emateagatik tasaren Zerga-Ordenantza: familia ugariantzat hobaria:

Gehitu behar da:

“ohiko etxebizitzari, ondorengo kasuetan.”.



3- Hirigintza-espedienteak bideratzeagatiko tasaren Zerga-Ordenantza:

Obra-lizentzia behar duen obra eta obra-lizentzien luzapena:

Esaten duenean:

12.000 €tik 30.000 €ra

Esan behar du:

12.001 €tik 30.000 €ra

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde, PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) alderdietako zinegotzienak eta ZAZPI (7) abstentzio, EAJ-PNV (4) eta EA (3) alderdietako zinegotzienak.

Eta, beste gairik ezean, 11:15etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.